



## UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIA. 2023KO AZAROAREN 2KO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

**Honako batzarkide hauek bertaratu dira:** Unai Alberdi Arakistain.....(% 0,79)

### **Aizarnazabalgo ordezkaria**

Mari Karmen Arregi Agirre.....(% 0,80)

Ana Isabel Lizarralde Ibar.....(% 0,79)

### **Azkoitiko ordezkariak**

Ana Azkoitia Urteaga ..... (% 11,91)

Asier Altuna.....(% 11,91)

### **Azpeitiko ordezkariak**

Joanes Amenabar Altuna.....(% 15,53)

Nagore Alkorta Elorza.....(% 15,53)

Jokin Badiola Agirrezabal.....(% 15,53)

### **Beizamako ordezkariak**

Aitor Arruti Arranz.....(% 0,14)

### **Bidania-Goiatzeko ordezkaria**

Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta.....(% 0,54)

Jose Mari Iraeta Semperena.....(% 0,54)

### **Errezilgo ordezkariak**

Luis Maria Arzallus Amenabar.....(% 0,58)

Nekane Zinkunegi Barandiaran.....(% 0,58)

Joseba Iñaki Labaka Beristain.....(% 0,58)

### **Zestoako ordezkariak**

Zigor Plazaola Anduaga.....(% 3,84)

### **Idazkari kontu-hartzailea**

Olatz Eizagirre Orbegozo

### **Ingurugiro Etxea Fundazioaren zuzendaria**

Orkatz Goenaga Ormazabal

### **Administrazio Orokorreko Teknikaria**

Estitxu Lasa Iturrioz

### **Aholkulari juridikoa**

Alejandro Castro Ubetagoyena.

### **Ez dira etorri honako batzarkide hauek:**

### **Aizarnazabalgo ordezkaria**

### **Azkoitiko ordezkariak**

Jose Joakin Etxaniz.....(% 11,90)

### **Beizamako ordezkaria**

Unai Barrutibengoa Olazabal.....(% 0,14)

Eneko Oregi Ziurraga.....(% 0,14)

### **Bidania-Goiatzeko ordezkaria**

Jose Migel Mendizabal Arnaez.....(% 0,54)

### **Zestoako ordezkariak**

Mikel Arregi Urrutia.....(% 3,85)

Garikoitz Mendizabal Etxeberria.....(% 3,84)

2023ko azaroaren 2an, arratsaldeko 18:10etan, Urola Erdiko Mankomunitateko aretoan, Plaza Nagusia, 11-1, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren ohiko osoko bilkura bildu da.

Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Bidania-Goiatz, Errezil eta Zestoako udalerriek osatzen dute Mankomunitatea, eta bertaratu diren ordezkariak toki-erakundearen % 78,8a ordezkatzeko dute. Mankomunitatearen estatutuen 10.6 artikulua honako hiru betekizun hauek ezartzen ditu Batzar Nagusiaren lehenengo deialdia baliozkoa izateko:

- 1) Batzarkideen erdia gehi bat egotea.
- 2) Batzarkideen botoen erdia gehi bat ere izatea.
- 3) Mankomunitatean ordezkariak dituzten udalen erdia gehi bat egotea ere.

Hiru baldintza horiek lehenengo deialdian bete dira.



Lehendakariak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita % 78,80ko quoruma zegoela egiaztatu ondoren), eta bost udalerriko ordezkariak bertaratu direla adierazi eta gero, Batzar Nagusiko bilkurari hasiera eman dio. Jarraian, batzarkideek deialdiaren gai-zerrendan jasota dauden gaiak jorratu dituzte.

## 1. 2023ko irailaren 6ko aktaren data zuzentzea

### Lehendakariaren Proposamena. 2023ko Irailaren 6ko Batzar Nagusien bilkurako akta zuzentzeko

#### AKTA ZUZENTZEA, 2023KO IRAILAREN 6KO BATZAR NAGUSIEN BILKURAKOA

#### AURREKARIAK

I. Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak bildu ziren bilkuran 2023ko irailaren 6an, 2023-2027 legeintzaldiko batzar nagusiak eratzeko.

II. Bilkura horretako akta onartu zuten Urola Erdiko Mankomunitateko batzar nagusiek 2023ko irailaren 21ean.

III. Akta hori akta liburura sartzerakoan, ordea, akatsa bete zen testuko bi atal hauetan

Tituluan:

*UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIA.  
2023KO IRAILAREN 9KO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA.*

Lehenengo paragrafoan

*2023ko irailaren 9an, arratsaldeko 18:40etan, Urola Erdiko Mankomunitateko aretoan, Plaza Nagusia, 11-1, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren ezohiko osoko bilkura bildu da.*

II. Errore bat antzeman da bilkuraren datan, 2023ko irailaren 6an egin baitzen, eta ez akta liburuan dioen moduan irailaren 9an.

Aurrekari horiei honako hauek aplikatu behar zaizkie,

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APEL) 109.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak"

Esandako guztiagatik,

2/34

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | [www.urolaerdia.eus](http://www.urolaerdia.eus)



## PROPOSATZEN DUT

**LEHENA.** - Zuzentzea Urola Erdiko Mankomunitateko irailaren 6ko batzar nagusien bilkurako akta, eta ager dadila horrela titulua eta testuko lehen paragrafoa hurrenez hurren:

*UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIA.  
2023KO IRAILAREN 6KO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA.*

*2023ko irailaren 6an, arratsaldeko 18:40etan, Urola Erdiko Mankomunitateko aretoan, Plaza Nagusia, 11-1, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren ezohiko osoko bilkura bildu da.*

*UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA  
Joanes Amenabar Altuna*

Inork besterik adierazi ez duenez, botazioa egin ondoren bertaratutakoek aho batez onartu dute 2023ko irailaren 6ko Batzar Nagusiko ez ohiko osoko bilkuren akta proposamenean agertzen den bezala zuzentzea, Urola Erdiko Mankomunitatearen boto haztatuaren 78,80ko portzentajeaz.

### **2. 2023ko irailaren 21eko Batzar Nagusiko ez ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.**

Inork besterik adierazi ez duenez, botazioa egin ondoren bertaratutakoek aho batez onartu dute 2023ko irailaren 21eko Batzar Nagusiko ez ohiko osoko bilkuren akta, Urola Erdiko Mankomunitatearen boto haztatuaren 78,80ko portzentajeaz.

### **3. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioarekin lankidetzaren hitzarmena onestea.**

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak 2023ko ekainaren 13an egindako Batzar Orokorrean, 2023 ekitalditik aurrera transferentzia birtuala eta transferentzia estaziorik ez duten Mankomunitateen konpentsazioak erregulatzen dizuten hitzarmena onartu zuen

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Urola Erdiko Mankomunitatearen hondakinak garraiatzeko zerbitzuen enkargurako hondakinen transferentzia-puntuak zehazteari buruzko hitzarmen zirriborroak honela dio:

***GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN ETA XXXX(E)KO MANKOMUNITATEAREN ARTEKO ADMINISTRAZIO HITZARMENA, HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZUAK AGINTZEKO HONDAKINEN TRANSFERENTZIA PUNTUAK ZEHAZTEAREKIN LOTUTA.***

*Donostian, 2023ko urtarrilaren XXXX(e)an*

***BILDU DIRA***



*Batetik, José Ignacio Asensio Bazterra jauna, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidentea eta haren ordezkartzan, 2022ko abenduaren 13ko Kontsortzioaren Batzar Orokorraren erabakiaren bidez berariazko baimena duena.*

*Eta, bestetik, xxxxxxxxxxxxxxxx, xxxxx(e)ko Mankomunitateko presidentea eta haren ordezkartzan, XX XX XX(e)ko Mankomunitateko Batzar Orokorraren bidez berariaz onartua.*

#### **ADIERAZI DUTE**

*1.- 2007ko maiatzaren 24an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa Eratzeko Batzarra egin zen, bere estatutuek dioten bezala, helburu nagusia alta kudeaketa egitea duena, hau da, GHHKPO 2002-2016an aurreikusitako azpiegiturak sortu eta ustiatzeko jarduera multzoa, baita hurrengo GHHKPOan aurreikusten direnak ere, kontsortzioko erakunde bati baino gehiagori zerbitzua eman ahal diotenak.*

*Bere izaera juridikoari dagokionez, Kontsortzioko Estatutuen 3. artikulua dio Kontsortzio izaera izango duela. Izaera juridiko propioa eta bere helburuak betetzeko ekiteko gaitasuna izango du, indarrean dauden xedapenetan eta Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera. Kontsortzioa Foru Aldundiari atxikita dago.*

*2.- Estatutuen 7. artikulua Kontsortzioaren xedea gauzatzen den jarduerak zehazten ditu. Horien artean, hitzarmen honen ondorioetarako, azpimarratu beharra dago transferentzia estazioetatik amaierako tratamendurako plantetara edo, hala badagokio, zabortegira, hondakinak garraiatzeari dagokiona*

*3.- 2010eko ekainaren 3ko Kontsortzioaren Araudiak hondakinak garraiatzeko jarduerak erregulatzen ditu, besteren artean, eta berariaz barne hartzen ditu transferentzia jarduera eta ondoren tratamendu zentroetara garraiatzea.*

*4.- Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala 2019-2030 onartu zen martxoaren 20ko 6/2019 Foru Araua, zera dioena: "Kontsortzioaren eskumenekoa den hondakinen transferentziari dagokionez, mankomunitate guztien arteko berdintasun printzipioa errespetatuz gauzatu behar da. Praktikan, hala ere, jasotze puntutik transferentzia zentrorara dagoen distantzia geografiko handiago edo txikiagoak desberdintasunak sor ditzake mankomunitateen arteko jasotze kostuetan. Beraz, beharrezkoa da Transferentzia Estaziorik ez duten eskualdeetan mankomunitate guztiak osatzen duten Hondakinen Kontsortzioak zehaztutako puntu geografiko batzuk ezartzea. Puntu horietan HHen transferentzia eginda dagoela ulertuko da, eta beraz, puntu horietatik abiatuz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari egokituko zaio zerbitzua emateko eskumena".*

*5.- 6/2019 Foru Araua 2019ko martxoaren 26an indarrean sartzeak aldaketa ekarri du baja egoeran dagoen eta alta egoeran dagoen sarea banatzerako unea zehaztean, lurralde planifikazioaren arabera Transferentzia Estaziorik izango ez duten eskualdeetan. Izan ere, aurreko sisteman baja egoeratik alta egoerara igarotzea Transferentzia Estazioetan ematen bazen ere, Arau berri hau indarrean sartzean aldaketa hau puntu geografiko birtual batean egin behar da, eta puntu hori Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak zehaztuko du.*



6.- Aipatutako 9/2018 Foru Dekretuak, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako hiri hondakinen azpiegituri buruzko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa onartu zuenak, aurreko Sektore Lurralde Planak aurreikusten zituen hainbat Transferentzia Estazio ezabatu ditu. Beraz, horren arabera Debabarrena eta Sasietako mankomunitateek bakarrik dituzte instalazio horiek. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak diseinatutako lurralde antolaketak, lurralde planifikazio horretan ezarritakoari jarraiki, hondakinak botatzera beste eskualdeetara mugitu behar diren mankomunitateak ondorengoak direla aurreikusten du:

- Urola Kostako Mankomunitatea: Errefusa eta biohondakina.
- Urola Erdiko Mankomunitatea: Errefusa eta biohondakina.
- Debagoienako Mankomunitatea: Errefusa.
- Txingudiko Mankomunitatea: Errefusa eta biohondakina.
- Tolosaldeako Mankomunitatea: Errefusa eta biohondakina.

San Marko Mankomunitateari dagokionez, bere lurraldeko udalerrietan ez da beharrezkoa transferentzia eta alta egoerako garraio funtzioa, bere lurralde eremuan sortutako hondakinak garraiatu ditzakeelako, baja egoeran, bere lurralde eremuan bertan dauden hondakinen tratamendurako plantetara

7.- 6/2019 Foru Arauak ezarritako betebeharrak betez, 2019ko abenduan, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak esparru-akordio bat onartu zuen, honako hauek arautzeko: (i) hiri-hondakinen alta bidezko transferentzia eta garraio zerbitzuaren baldintzak, eta (ii) zerbitzu horrengatik konpentsazio ekonomikoak transferentzia-estaziorik ez duten mankomunitateen alde, zerbitzu hori kudeatzeko ardura emanez eta konpentsazioa onartuz

Akordio horren ondorioz, administrazio arteko hitzarmen hauek sinatu ziren

- Hitzarmena, Urola Kostako Mankomunitatearekin, 2020ko abenduaren 14koa.
- Hitzarmena, Urola Erdiko Mankomunitatearekin, 2020ko irailaren 1ekoa.
- Hitzarmena, Tolosaldeko Mankomunitatearekin, 2020ko abenduaren 4koa.
- Hitzarmena, Txingudiko Mankomunitatearekin, 2020ko ekainaren 19koa.
- Hitzarmena Debagoienako Mankomunitatearekin, 2021eko abenduaren 22koa.

Hitzarmen horiek gehienez lau urteko iraupena aurreikusten zuten, luzapenak barne. Hori dela eta, indarraldia 2022ko abenduaren 31n amaituko da.

Hitzarmen hori inspiratu zuten printzipioei eta 2019-2030 GHHKPO onartzeko 6/19 FATik eratorritako betebeharrari eutsiz, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izango dituen hitzarmen berri bat onartzea proposatzen da, gaur egun indarrean dagoena ordezkatzeko.

10.- Transferentzia-hitzarmen berri honek eta horren konpentsazioak Administrazio Publikoek euren jardunean eta elkarren arteko harremanetan errespetatu behar dituzten printzipioei erantzuten die, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren 40/2015 Legean jasotakoa: "Administrazio prozeduren eta kudeaketa jarduera materialen arrazionalizazio eta azkartasuna", "Baliabide publikoen esleitze eta erabileran eraginkortasuna" eta "Administrazio Publikoaren arteko kooperazio, kolaborazio eta koordinazioa".



11.- Azaldutakoagatik, urriaren 14eko 40/2015 Legearen 47. eta ondorengo artikuluetan adierazitakoaren arabera Sektore Publikoko Erregimen Juridikoaren eta Lege horretan aurreikusitako baldintzak betez, bi aldeek, gaitasun osoa eta legitimazio nahikoa aitortuta, administrazio arteko hitzarmen hau sinatzea adostu dute, honako klausula hauen arabera

## **KLAUSULAK**

### **Lehenengoa.**- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da alderdien arteko lankidetzarako oinarriak ezartzea, bakoitzak bere eskumen-eremuaren barruan, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren 2022ko abenduaren 13ko Batzar Nagusiaren eta XXXXko XXXXaren XX (e) ko Mankomunitatearen Batzar Orokorraren erabakia betez, hiri-hondakinen alta bidezko transferentzia eta garraio zerbitzua artikulatzeko. Zerbitzu horren kudeaketa, Kontsortzioaren titulartasunekoa izanik, XXX mankomunitatearen esku uzten da, haren eskualde-eremuan ez baitago Transferentzia Estaziorik.

### **Bigarrena.**- Jarduerak zehaztea

Euren eskualde eremuan Transferentzia Estaziorik ez duten mankomunitateei dagokie hondakinak garraiatzea transferentzia deitutako puntu geografikoetatik Kontsortzioak zehazten duen estazio edo zentroraino.

Ondorio hauetarako, honako puntu geografiko hauek zehaztu dira. Horietan, HHen transferentzia egin dela ulertuko da, eta horietatik aurrera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak altako kudeaketaren zerbitzua ematearen eskumena bere gain hartuko du:

- Debagoienako Mankomunitatea: TRANSFERENTZIA PUNTUA: Akei
- Urola Kostako Mankomunitatea: TRANSFERENTZIA PUNTUA: Zarautz
- Urola Erdiko Mankomunitatea: TRANSFERENTZIA PUNTUA: Lapatx
- Tolosaldea Mankomunitatea: TRANSFERENTZIA PUNTUA: Tolosa
- Txingudiko Mankomunitatea: TRANSFERENTZIA PUNTUA: Araso

**Hirugarrena.**- Hitzarmen hau indarrean sartzen denetik aurrera izango du eragina adierazitako mankomunitateek egiten duten garraioa dela eta konpentsazioa jasotzeko duten eskubidea, transferentzia puntu geografiko birtualetik Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak zehaztutako helmuga zentrorara arte, aurretik adierazitako ezarpen orokorreko irizpide berezien arabera, erantsitako txosten ekonomiko-finantzarioan agertzen direnak, txosten horren konpromiso ekonomikoen euskarri direnak.

Mankomunitate hauentzako konpentsazioen diseinuaren oinarria da garraiatu beharreko hondakin tonak, deskarga puntura dagoen distantzia, garraio denbora eta erregai kontsumoa. Autopista peajeak barne daude, erabiltzen diren kasuetarako.



Batzarrak 2019ko abenduaren 16an onartutako egungo kostuetatik abiatuta (aurrez neurtutako kostuak kontuan hartzen zituen), honako prezio hauek genituen:

MANKOMUNITATEA / MANCOMUNIDAD	KONPENTSATU BEHARREKO GAINKOSTUA /SOBRECOSTE A COMPENSARE/(TN*KM)
Debagoiena	0,53
Urola Kosta	0,51
Urola Erdia	0,59
Tolosaldea	0,41
Txingudi	0,48

Batzarrean bertan onartutako prezioak berrikusteko formularen oinarrituta, 2022ko ekitaldirako kostuak eguneratu dira:

MANKOMUNITATEA / MANCOMUNIDAD	KONPENTSATU GAINKOSTUA /SOBRECOSTE A COMPENSARE/(TN*KM)	BEHARREKO
Debagoiena	0,71	
Urola Kosta	0,68	
Urola Erdia	0,79	
Tolosaldea	0,55	
Txingudi	0,64	

2023ko ekitaldirako eta hurrengoetarako, lehen adierazitako kalkulu-oinarritik abiatuko da, eta bosgarren klausulan adierazitako eguneratze-formularen arabera eguneratuko da.

Hau da, aurreko taulako prezioak 2022ko ekitaldikoak direla kontuan hartuta, 2023ko ekitaldia itxi ondoren, hurrengo ekitaldiko lehen Batzarrean, 2023ko ekitaldiko kostuen igoera kalkulatu da eguneratzeko formularen oinarrituta, eta zenbatekoak erregularizatuko dira.

Eguneratze hori arintzeko, urte bakoitzeko ekainean ekitaldi horretarako aurreikusitako konpentsazioen %50a aurreratuko da, azken likidazioaren kontura.

Prozedura bera erabiliko da hitzarmenak irauten duen ekitaldi bakoitzerako.

**Laugarrena.-** HHak kokapen horretatik tratamendu edo transferentzia helmugara arte garraiatzeko zerbitzua mankomunitateei agindu zaie, hitzarmen honen I. eranskinean ezarri alde ematen duen zerbitzuarekin lotuta bakoitzari egokitu beharreko ahalmen eta erantzukizunak, edonola ere Kontsortzioaren HHen transferentzia eta tratamenduaren zerbitzu publikoaren kudeaketa Araudian ezarritakoa errespetatu beharko duena, egun indarrean dagoena.

Agindutako altako garraioa hauxe da:





- Debagoienako Mankomunitatea: Errefusa garraiatzea Akeitik Elgoibarko Transferentzia Estaziora, 26 km.
- Urola Kostako Mankomunitatea: Errefusa eta biohondakina garraiatzea Zarautzetik, Elgoibarko Transferentzia Estaziora, 32 km., GIGra, 17 km.
- Urola Erdiko Mankomunitatea: Errefusa eta biohondakina garraiatzea Azkoitiko garbigunetik GIGra, 25km.
- Tolosaldeako Mankomunitatea: Errefusa eta biohondakina garraiatzea Tolosatik GIGra, 23km.
- Txingudiko Mankomunitatea: Errefusa eta biohondakina garraiatzea Arasotik GIGra, 24 km.

### **Bosgarrena.**- Indarraldia eta eguneraketak

1. Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta gehenez ere lau urteko iraupena izango du, eta beste lau urtez luzatu ahal izango da, bi alderdiek berariaz hala adosten badute, salbu eta alderdietako batek amaiera iragartzen badu, hitzarmenaren hasierako iraupena amaitu baino hilabete lehenago jakinarazita

2. 3. 2024tik aurrera, konpentsazioa kalkulatzeko beharrezkoak diren irizpideen kopurua luzapen bakoitzerako eguneratuko dira, honako honen arabera:  
hau indarraldia amaitzean iraungiko da. Hala ere, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan ezarritako iraungitze arrazoiengatik ere iraungi ahalko da.

**Kostua Guztira [€/ (Tn\*Km)]** = Langileak % 60 + Erregaia % 30 + % 5eko narriadura + % 5 Mantentzea

**Prezioa Berrikusteko Formula** = % 60 \* Langile indizea + % 30 \* Erregai indizea + % 10 \* Mantentze eta Birjarpen Indizea.

Non:

- Langile indizea: Urte arteko balorazioa, aintzat hartuta Gipuzkoako Bide Garbiketa Hitzarmen Kolektiboa
- Erregai indizea: Espainiako gasolioaren batez besteko prezioen hileko aldakuntza-indizeen batez bestekoa, Sustapen Ministerioak argitaratua
- Mantentze eta birjartze kostuen indizea: Urte arteko aldaketa, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren industria prezioen Indizearen arabera, hilabetea eta urtea ondasunen helmuga ekonomikoagatik, Industri sektore handiak (Oinarria 2015)

**Seigarrena.**- Hitzarmen hau finantzatzeko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak 2023 ekitaldiko konprometitutako gastua onartu du, 803.444 eurogatik.





**Zazpigarrena.-** *Administrazio artekoa lankidetzaz hitzarmenak sinatu ondoren, indarririk gabe geratuko da hondakinen transferentzia zerbitzuari lotutako aurretik hartutako ekimen, erabaki edo xedapen oro, Kontsortzio honek dagokion Kontsortzioko kide den Erakundearekin sinatu edo hartutako hitzarmen edo erabakietan ager daitekeena.*

**Zortzigarrena.-** *Aldeen betebeharrak*

- *Mankomunitateari dagokio esleitutako transferentzia puntutik Kontsortzioak ezarritako tratamendu zentroraino edo transferentzia estazioraino hondakinak garraiatzea.*
- *Mankomunitateak zerbitzu hau ematearen erantzukizun osoa dauka. Horren baldintzak hitzarmenaren I. eranskinean zehaztu dira.*
- *Kontsortziolari dagokio Batzarrak marko akordioaren bidez kaltetutako Erakunde guztiei ezarri ahal zaizkien irizpide komunak arabera adostutako konpentsazioak ordaintzea, zerbitzuaren kostuetako desberdintasunak zuzentzeko asmoz.*
- *Mankomunitateak zerbitzuko edozein gorabehera jakinarazi beharko du, eta emandako zerbitzua justifikatzeko Kontsortzioak errekeritutako dokumentazioa eman, dagokion konpentsazioak kalkulatzeko oinarritzeko.*

**Bederatzigarrena.-** *Aldaketak eta ez betetzeak*

*Hitzarmen hau bi aldeek idatziz adostuta bakarrik aldatu ahalko da. Aldeetako batek aldaketa baimendu ez badu, hitzarmenetik aldentu ahalko da, eta aldentu aurretik onartutako jardueretan bere konpromisoei erantzuna ematera behartuta egongo da.*

*Aldeek hitzarmen honetan ezarritakoa beteko dute, hitzarmen honetan ezarritakoa zuzenean edo zeharka zaildu edo ekidin dezakeen jarduerarik edo jarduerarik egin gabe edo erabakirik hartu, onartu gabe.*

*Aldeek onartutako betebeharrak eta konpromisoa ez betetzeak Sektore Publikoko Erregimen Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan aurreikusitako prozedura ekarriko du.*

*Ez-betetzerekin bat gertatuz gero, ez-betetzeak eragindako kalteen pareko kalte-ordaina hartuko du bere gain.*

**Hamargarrena.-** *Jarraipena, ikuskaritza eta kontrola*

1. *Sinatzen duten aldeek arteko kooperazioa lankidetzaz hitzarmenak sinatu dituzten mankomunitateen ordezkariekin osatzen den Jarraipen eta Kontrol Batzorde Orokorren bidez egingo da.*
2. *Jarraipen, ikuskaritza eta kontrol batzordea pertsona batek osatuko du, erakunde bakoitzaren ordezkarietan edo delegazioz dauden pertsonetan, sei guttura.*



3. Jarraipen, ikuskaritza eta kontrol batzorde orokorrak honako funtzio hauek beteko ditu:

- Hitzarmen honen betetzearen ikuskaritza eta kontrola.
- Hitzarmen honen garapen eta gauzatzean sor daitezkeen interpretazio arazoak konpontzea.
- Legearen arabera dagozkion beste guztiak

4. Batzordearen deialdiak Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren ordezkariak egingo ditu, ahal dela bide elektronikoen bidez. Horretarako, erabakiak eztabaidatzeko eta hartzeko beharrezko dokumentazioarekin lagundu beharko da.

**Hamaikagarrena.-** Ebazpena.

Hitzarmen hau iraungitzeko arrazoia izango dira Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan administrazio arteko hitzarmenetako aurreikusitako berdinak.

Aldeetako batek hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteei betetzeko exijitzeko eskumena emango dio, edo hitzarmena ebazteko eskatzeko.

**Hamabigarrena.-** Erregimen Juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Aurretiazko Tituluaren VI. Kapituluaren ezarritakoaren arabera.

Administrazioen arteko hitzarmen honek Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2. Atalaren 27. Artikulua a) letran aurreikusitako tipologia gaineratzen du.

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak espainiar ordenamendu juridikora pasa zituen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, "SPKL") 6.1 artikulua arabera, hitzarmen hau horren ezarpen eremutik salbuetsita dago.

Eta ezarritakoaren ados daudela adierazteko, bi aldeek sinatu dute, bi ale, adierazitako leku eta egunean.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX  
Presidente de la Mancomunidad de xxxx

D. José Ignacio Asensio Bazterra  
Presidente del Consorcio de Residuos de  
Gipuzkoa



**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 78,80**

Aizarnazabalgo ordezkariak (%1,59): M<sup>a</sup> Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Ana Isabel Lizarralde Ibar A. (%0,79)

Azkoitiko ordezkariak (%23,82): Ana Azkoitia Urteaga A. (%11,91), Asier Altuna J. (%11,91).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (%15,53), Jokin Badiola Agirrezabal J.. (%15,53).

Beizamako ordezkariak (%0,14) Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14)

Bidania-Goiatzeko ordezkariak (%1,08): Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta J. (% 0,54), Jose Mari Iraeta Semperena J. (% 0,54)

Errezilgo ordezkariak (%1,74): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi Barandiaran A. (0,58), Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (%0,58),

Zestoako ordezkariak (%3,84): Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

**Kontra: % 0,00**

**Abstentzioa: % 0,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**Lehena:** Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Urola Erdiko Mankomunitatearen hondakinak garraiatzeko zerbitzuen enkargurako hondakinen transferentzia-puntuak zehazteari buruzko hitzarmena onartzea.

**Bigarrena:** Urola Erdiko Zerbitzu mankomunitateko lehendakaria hitzarmena sinatzeko behar den ahalmena ematea.

**4. 2023/05 Kreditu aldaketa: Kreditu gehigarriaren modalitatekoa onartzea.**

**Lehendakariaren Proposamena. 2023ko Urola Erdiko Mankomunitateko Aurrekontuko Kreditu Gehigarriaren Bosgarren Espedientea**



## KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen Partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.203.162.10.02 2023	Alboko kargako Ibilgailuen alokairua	140.844,00	2.000,00	142.844,00
1 0000.220.162.20.02 2023	Aldizkariak, argitalpenak	800,00	4.000,00	4.800,00
1 0000.221.162.20.99 2023	Bestelako hornidurak	10.000,00	8.969,16	18.969,16
1 0000.224.162.10.02 2023	Kamioiaren aseguruak	943,90	690,75	1.634,65
1 0000.225.162.10.01 2023	TAG	1.500,00	200,00	1.700,00
1 0000.227.162.20.01 2023	Bulegoetako garbiketa	4.000,00	700,00	4.700,00
1 0000.227.162.20.15 2023	Ingurugiro Etxea Fundazioa	1.000,00	64.013,00	65.013,00
1 0000.227.162.20.99 2023	Datu personalen babesa	3.206,02	1.724,25	4.930,27
1 0000.227.162.30.08 2023	Garraioa Lapatxetik Zubietara	75.000,00	6.000,00	81.000,00
1 0000.227.162.30.17 2023	Errefusa Tratamendua	617.900,18	110.000,00	727.900,18
1 0000.626.162.20.01 2023	Zerbitzaria	0,00	4.500,00	4.500,00
1 0000.624.162.10.01 2023	Atoia	0,00	4.500,00	1 4.500,00
1 0000.629.162.30.01 2023	Gurdi altxatzailea	0,00	10.000,00	10.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	855.194,10	217.297,16	1.072.491,26

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2023	Gastu orokorretako diruzaintza gerakina	217.297,16
	<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		217.297,16

## KODEEN AZALPENEA

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- Sarrera berri edo handiagoak.
- Kredituen baliogabetze baja.
- Kreditu eragiketak.

Azpeitian, 2023(e)ko urriaren 25(e)an

12/34

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | [www.urolaerdia.eus](http://www.urolaerdia.eus)



**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 78,26**

Aizarnazabalgo ordezkariak (%1,59): M<sup>a</sup> Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Ana Isabel Lizarralde Ibar A. (%0,79)

Azkoitiko ordezkariak (%23,82): Ana Azkoitia Urteaga A. (%11,91), Asier Altuna J. (%11,91).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (%15,53), Jokin Badiola Agirrezabal J.. (%15,53).

Beizamako ordezkariak (%0,14) Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14)

Bidania-Goiatzeko ordezkariak (%0,54): Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta J.

Errezilgo ordezkariak (%1,74): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi Barandiaran A. (0,58), Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (%0,58),

Zestoako ordezkariak (%3,84): Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

**Kontra: %0,54**

Bidania-Goiatzeko ordezkaria (%0,54): Jose Mari Iraeta Semperena J. (% 0,54)

**Abstentzia: % 0,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**LEHENENGOA.-** Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Gastuen Partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.203.162.10.02 2023	Alboko kargako Ibilgailuen alokairua	140.844,00	2.000,00	142.844,00
1 0000.220.162.20.02 2023	Aldizkariak, argitalpenak	800,00	4.000,00	4.800,00
1 0000.221.162.20.99 2023	Bestelako hornidurak	10.000,00	8.969,16	18.969,16
1 0000.224.162.10.02 2023	Kamioiaren aseguruua	943,90	690,75	1.634,65
1 0000.225.162.10.01 2023	TAG	1.500,00	200,00	1.700,00
1 0000.227.162.20.01 2023	Bulegoetako garbiketa	4.000,00	700,00	4.700,00



1 0000.227.162.20.15 2023	Ingurugiro Etxea Fundazioa	1.000,00	64.013,00	65.013,00
1 0000.227.162.20.99 2023	Datu personalen babesa	3.206,02	1.724,25	4.930,27
1 0000.227.162.30.08 2023	Garraioa Lapatxetik Zubietara	75.000,00	6.000,00	81.000,00
1 0000.227.162.30.17 2023	Errefusa Tratamendua	617.900,18	110.000,00	727.900,18
1 0000.626.162.20.01 2023	Zerbitzaria	0,00	4.500,00	4.500,00
1 0000.624.162.10.01 2023	Atoia	0,00	4.500,00	1 4.500,00
1 0000.629.162.30.01 2023	Gurdi altxatzailea	0,00	10.000,00	10.000,00
<b>GUZTIRA</b>		855.194,10	217.297,16	1.072.491,26

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2022	Gastu orokorretako diruzaintza gerakina	81.048,79
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			81.048,79

#### KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

**BIGARRENA.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

**5. Urola Erdiko Mankomunitateko langileei eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.Aren langileei ezarri beharreko ordainsarien igoera onestea.**

**Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena, Urola Erdiko Mankomunitateko langileei eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A.-ren langileei %0,5eko ordainsari-igoera gehigarriari, 2023.01.01eko ondorioekin**

#### IKUSIRIK



Urte bakoitzerako Estatuko aurrekontu orokorren legeak ezartzen du urtero toki-korporazioetako soldatek edo langile-gastuek izan dezaketen igoeraren muga. Ildo horretan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 21. artikulua (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) xedatzen du ezingo dela adostu urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak langile-gastuetarako ezarritako mugak baino soldata-masaren igoera handiagoa.

2023ko ekitaldirako, Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 19. bi.1 artikuluan, sektore publikoaren zerbitzupeko langileen ordainsariaren %2,5eko igoera aurreikusi zuen, 2022ko abenduaren 31an indarrean zeudenekiko, homogeneotasunari dagokionez.

Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, bi mila eta hogeitahiruko martxoaren hogeita hamaikan egindako bileran, 2022ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuta, Urola Erdiko Mankomunitateko langileei eta Urola Erdiko Lapatx Zaborteia S.Aren langileei %2,5eko ordainsari-igoera orokorra aho batez onartu zuen.

Joan den irailaren 28an, Estatistikako Institutu Nazionalak Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren 2023ko iraileko datu aurreratua argitaratu zuen, %3,2koa. Datu horri 2022ko ekitaldiko urteko KPI harmonizatua gehituta, %5,5koa, % 6tik gorako batura ateratzen da, eta baldintza hori Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko 31/2022 Legearen 19. BI artikuluan jasotzen da, ordainsarien % 0,5eko gehieneko igoera gehigarria egiteko, 2023-01-01eko ondorioekin. Ildo horretan, eta legeak berak jasotzen duen bezala, Ministro Kontseiluak, 2023ko urriaren 3an egindako bilkuran, gehikuntza hori aplikatzea erabaki du (2023.10. 5 BOE).

## KONTUTAN HARTURIK

I. Abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2.a) artikulua.

II. Eskumenari dagokionez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki Jardunbideko Oinarriak arautzen dituen) 22. artikulua Batzar Nagusiaren gain utzi du herri-langileen ordainsari osagarrien onartzea.

Hori dela eta,

## PROPOSATZEN DET

15/34

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | [www.urolaerdia.eus](http://www.urolaerdia.eus)





**Lehena.-** 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi 2.a) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza gehigarria onartzea. Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dauden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Modu honetan, igoera hau urte hasierako %2ko igoerari batuta, 2022. ekitaldian %3,5eko soldata igoera orokorra kontsolidatzea ekarriko du.

**Bigarrena.-** Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Azpeitian, 2023ko urriaren 23an

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK  
**Joanes Amenabar Altuna**

**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 78,80**

Aizarnazabalgo ordezkariak (%1,59): M<sup>a</sup> Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Ana Isabel Lizarralde Ibar A. (%0,79)

Azkoitiko ordezkariak (%23,82): Ana Azkoitia Urteaga A. (%11,91), Asier Altuna J. (%11,91).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (%15,53), Jokin Badiola Agirrezabal J. (%15,53).

Beizamako ordezkariak (%0,14) Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14)

Bidania-Goiatzeko ordezkariak (%1,08): Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta J. (% 0,54), Jose Mari Iraeta Semperena J. (% 0,54)

Errezilgo ordezkariak (%1,74): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi Barandiaran A. (0,58), Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (%0,58),

Zestoako ordezkariak (%3,84): Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

**Kontra: %0,00**

**Abstentzioa: % 0,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**



